

DECRECER PROIEKTUARI BURUZ Bene Bergado

DECRECER proiektuan, aurreko proiektuetan aipatutako gaiak sakonago lantzen ditut, eta, gainera, inoiz baino gehiago elkartzen dira alderdi biografikoak eta ideologikoak. Nolabait ere, iraganerantz jotzeak trinkotu egiten du oraina.

Txikitatik, beti galdetu diot neure buruari zer zentzu ote duen hazkunde mugagabeak industria-ekoizpenean. Enpresa bat urtez urte esponentzialki hazi behar izateak ezinbestean ekartzen dizkit burura amaiera eta kolapsoa.

Margarita Mediavillak dioen bezala, gure gizarte garatuetan ekoizteko eta kontsumitzeko dugun gaitasunaren zentzu mugagabearen arrazoi nagusietako bat da nahi izan dugun erritmoan atera ahal izan ditugun erregai fosilen kalitatea eta aldakortasuna. Energia ezin hobeak dira hazteko, eta aukera eman dute muga kontzepturik gabeko sistema ekonomiko bat garatzeko: kapitalismoa.

Hazkunde ekonomiko jarraitu eta mugagabearen oinarritzen den eta gizateriak ezagutu duen energiari osoenak eta boteretsuenak —petrolioak— elikatzen duen kapitalismoaren logika horrekin, planeta baliabideen hornitzaile huts bihurtu da, eta jada ez da gai leheneratzeko, gure ekoizpenaren eta kontsumoaren abiadura neurrigabearen ondorioz. Naturak milioika urtetan gorde zituen baliabideak inolako begirunerik gabe xahutuz bizi gara, eta horrek krisi global batera eramán gaitu, baliabide naturalak agortzen ari baitira —lehengaiak eta erregai fosilak—, ekosistemak zatikatzen eta suntsitzen, eta lurra, itsasoa eta airea maila handietan kutsatzen.

*Desazkundearen pentsamendu-korronteak ekoizpena erregulartasunez eta modu kontrolatuan murriztea proposatzen du, **gizakien eta lur-planetaren artean berdintasunezko erlazio** berri bat ezartzeko, urritasunean eta autolimitazioan oinarrituta, hori baita gizateriak bizirik irauteko duen aukera bakarra. Honela laburbil daiteke: “**hobeto bizitzea gauza gutxiagorekin**”.*

Neurrigabeko kontsumismoaren garaian bizi gara, aberastasun ekonomikoarekin obsesionatuta, milioidunek inbidia piztu, eta luxu handien distirak biztanleak liluratzen dituela. Beraz, desazkundearen diskurtsoa *a priori* ez da oso erakargarria, zalantzarik gabe, ohitura soilak eta elkartasun- eta enpatia-dosi handiak eskatzen dituen proposamen ideologikoa baita.

Kontsumismoa erlijio berria da mundu osoko milioika pertsonarentzat, eta mendekotasun kontsumista horrek, finantza-fundamentalismoarekin batera, baliabide naturalak irensten dituen eredu ekonomikoari eusten dio. **Ondasunen kontsumo konpultsiboa da ingurumenaren degradazioaren arrazoi nagusia.**

Baina desazkundera ez da aukera bat izango, hazkunde ekonomikoaren eragin suntsitzaileek ekarritako ondorioa baizik.

Trantsizio energetikoa ezinbestean egin beharko dugu energia berriztagarriekin eta teknologikoekin, baina horiek ezin dira biltegitatu (erregai likidoak, adibidez) eta ezin dira hazi, lurraldeak mugatutako energiak baitira, eta lurraldearekin lehiatzen direnak.

Benetako trantsizioa egiteko zailtasunik handiena da gure gizartea eta gure industria erregai fosilek moldatzen dutela, batez ere petrolioak, pagotxa energetiko handiak, Margarita Mediavillak dioen bezala.

Orain arte, egungo sistema sozio-ekonomikoa ez da gai izan energia-eskasiaren aurrean erreakionatzeko, ez baitu onartzen energia berriak ezin direla oinarritu hazkunde esponentzialean eta berehalako onuran, horiek baitira kapitalismoaren oinarriak. Sistema ekonomikoa egokitzen ari da, pobrezia eta krisi ekonomikoaren bidez.

Energia gutxiko eta bizi-aldaketa saihestezineko mundua etorriko da. Teknologiak lagundu dezake, baina errotiko aldaketa sozio-politikoak egin behar dira, eta, hor, arteak eta artistek, gure lan-prozesu integratzaileekin, gutxienez, bide batzuk erakutsi eta ikusarazi ahal izango ditugu, desintoxikatzeke eta alferrikakoarekiko gehiegizko ohiturak desegiteko.

Isabelle Stengersek dioen bezala, "ikaragarri gaizki prestatuta gaude gertatzen ari denari aurre egiteko". "Gauza gutxiagorekin hobeto bizitzea" leloak mendeko egiten gaituen eredu ekonomikotik askatu nahi gaitu, eredu hori eskalakoa, lehiakorra eta premiazkoa baita, eta gure iruditeria komuna aldatu nahi du, ongizate-gizartean luxuekin bizi garenok beti gehiago nahi baitugu eta luxurik ez dutenek gu bezalakoak izan nahi baitute. Aberastasunaren ideia berriz definitu behar da, eta gogobetetze moral, intelektual eta estetiko delat onartu, errealtatearen mugen kontzientzia gisa, eta etorkizunaren egile gisa dugun erantzukizuna onartuta. "decrecer" erakusketak artearen egitekoak berezko duen zerbait transmititu nahi du, hau da, geure bizitzaren gainean dugun erantzukizuna, egiten dugunaren eta horrekin transmititzen dugunaren erantzukizuna. Sorkuntza artistikoak entseatzan du gai sentitzea, gai bihurtzea, erantzule izatea eta ondorioak gure gain hartzea.

Ekintzarako dei honetan, erakusketako instalazioak eta eskulturak desazelerazio baten beharrarekin jarduten dira, mugaren kontzientziaren eta artearen eta tratatzen duenaren arteko tentsio dinamikoaren bidez: prozesu artistikoen eta gairik esplizituenen artean.

Horrela, "decrecer", desazkundea, ez da soilik erakusketa honen edukia edo gaia, baizik eta, batez ere, esperientzia artistikoaren berezko konpromisoa. Sorkuntza-prozesuek kongruentzia bilatzen dute helburuen eta bitartekoen, asmoen eta gauzatzeen, adierazpenaren eta ekintzaren artean. Nire elaborazio-prozesuek modu poetikoan barne hartzen dituzte materialen fisikotasuna eta funts sinbolikoa –birziklatutako zaborra izan edo material noble eta birziklagarriak izan, hala nola brontzea–, prozeduren gardentasuna, obren konfigurazio formala –historian zeharreko herentzia artistikoa bere gain hartzen duena–, bizipen sentikorrek eta emozionalak, erresonantzia biografikoak, faktore sinbolikoak eta argumentalak, jarrera intelektual eta ideologikoak... Horrela, obrak, mundua irudikatzeaz gain, munduan jarduteko modu berezi bat ere badira Artelanez agerian jartzen dituzte interdependentzia-prozesuak, nola pertsonen eta mundua sinbolizatzeke dituzten moduen artekoak, hala gizakiaren eta gizakiak parte diren ingurunearen artekoak; modu bat adierazten dute bizitzarekin erantzukizuna eta arreta izateko, biziagotze- eta zaintza-modu bat zehatzarekiko eta errealekiko. Ildo horretan, "decrecer" proiektuak aipamena egiten dio eusteari eta erantzunkidetasunari, esperientzia artistikoaren berezko ezaugarriak baitira.